

HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA BATERATURANTZ: AHOZKO AZALPENAREN DIDAKTIKA ELEANIZTUNA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN

Tesiaren egilea: Ana Aldekoa Díez

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Tesi-zuzendaria: Itziar Idiazabal eta Ibon Manterola

Tesiaren laburpena:

Tesiaren ingelesezko izenburua honako hau da: «Exploring the Impact of Design Thinking on Higher Education Students' Creative Self-Efficacy».

Tesi honen helburua da ikustea ea euskara, gaztelania eta ingelesa integratzen dituen sekuentzia didaktiko bat, zeina hizkuntza-alternantzia eta hizkuntzarteko transferentzian oinarritzen den, eraginkorra den DBH 4. mailako ikasleek ahozko azalpenak ekoizteko abileziak garatzeko, gaztelania ikasleen H1 den testuinguru soziolinguistiko batean. Ikasleek sekuentzia didaktiko horren aurre-testu eta ondo-testu gisa ekoizten dituzten testuek osatzen dute tesi honen alde empirikoa. Hain zuzen ere, ikasleen ahozko azalpenen elementu diskurtsibo eta gramatikal zehatzak hautatu dira azterketarako.

Ikasleen ekoizpenak izan arren azterketa-unitate garrantzitsuenak, sekuentzia didaktiko hirueledunaren egingarritasuna ere izan dugu aztergai, alegia, irakaslearen aukerak eta erronkak sekuentzia didaktikoa gelaratzeko orduan.

Oro har, ahozko azalpen hobeak ekoizten dituzte ikasleek hiru hizkuntzatan sekuentzia didaktikoa egin ondoren. Beraz, esan dezakegu alde aurretik eta helburu zehatz batzuekin planteatutako hizkuntza-alternantzia eta hizkuntzen integrazioa testu-genero baten ikaskuntzara bideratutako sekuentzia didaktiko batean eraginkorrak izan daitezkeela euskal hezkuntza-sistemaren barruan eleaniztasuna hizkuntza gutxitu batekin sustatzeko.